

# **POETA MATEMATIKARIA**

“Ezinezkoa da matematikaria izatea poeta arimarik izan gabe.  
Besteak ikusteko gai ez diren gauzak ikusteko  
kapaz izan behar da **poeta**, zenbait pertsonak baino  
barnerago ikusteko gauza izan behar da.  
Eta **matematikariak** gauza bera egin behar du.”  
S. KOVALEVSKAYA

Baliteke errebelazio tankerako zerbait izatea  
ekidin ezin eta askatutako  
izkiriaturako nahiz soilik pentsaturako  
pentagrama solteak...

### **...poesia**

Luma orri gainean balantzatzen duena bakarrik  
ez dela poeta esan zidala noizbait  
norbaitek  
nonbait  
oroitzen dut.  
Eleak konposatzea ez dela aski  
guztiok barnean dugun poetatxo ezezagun  
ezaguna kanporatzeko  
haren bitartekari izateko norberaren bokazio/ofizio

#### **Poeta**

filmetako hirugarren planoan ageri den  
extra difuminatu oro ere bai baita

#### **Poeta**

uretan biratuaz  
pittinka murgiltzen doan pilotarekin itsutzen den  
umettoa da

#### **Poeta**

besteen margoen usaina gauez jasan behar izaten duen  
neskatoa da  
norbere pinta gabeko horma inprobisatuak konprenitu nahian  
orenak igarotzen dituen alaba

#### **Poeta**

Insomniotan mila monologo eraikitzen dituen  
ameslaria da

## Poeta

Iragana atzean lagatzeko tipula ebakitzen duen  
sukaldari, ez hain sukaldaria da

Izan bedi puntu bat **a**

Gero izan bitez **a**

**b**

eta **c**.

Izan bedi azken hau ere. Ia beti  
behar delako hirugarren bat badaezpada

Ez dakit

puntuak identifikatzen goazen heinean joaten garen puntu  
identitatea onartzen, apurka  
uste izan gabe sinetsi nahi gabe benetan  
munduan puntu single batto garela, norbera izan eta kolektiboki  
izan. Izatea baita kontua, bagarela erakustea  
ikustea. Eta izatez  
bagara

Nahiak ez du generoez ulertzen  
ez ele, numero, ez hizkuntzez eta hartara  
hartara puntu solteak  
lotu egiten dira lantzean behin  
gorputzak eskatzen zuen beharretako bat bezala da. Eta bitartean  
itxaroten, eta itxaron bitartean saretzen goaz  
bagoaz, ohartzeke edota nahita  
Baina demagun ez dela apropos gertatutako zerbait  
eta patua deitzen zaio zerbait deitzearren  
izen gabeak hemen nekez direlako inorentzat existitzen  
Egiten dugu guk ordea  
korapiloa. Eta puntuz puntu josten  
amaraun konplexu batto,  
bat gehiago eta  
bakarra aldi berean

Puntu bat historian

izan bedi **a**